

Amaiaren arkatz margolariak

Egun, Amaiaren urtebetetzea da.

Amak arkatz margolariak erosi dizkio : hogeita lau arkatz berri.

Amaia loriatua da.

Arratsean, logelara eramaiten ditu eta ohearen ondoko mahaian uzten.

Polliki-polliki, lokartzen da.

Orduan, zerbait entzuten da. Bai, zurrumurru batzuk... Bai, bai... margoak dira mintzo!

Urdina : – Bai, zinez, neska oso xintxoa da Amaia!

Berdea : – Eta zein ederki egiten dituen marrazkiak!

Horia : – Eta zein ongi margotzen dituen!

Marroia : – Bai! Margoak biziki ongi hautatzen ditu. Eta zuk, Gorri, zer diozu?

Gorria : – Bai, bai, Amaia oso neska ona da.


Berdea : – Ikusi dituzue ene pentzeak? Larreak? Eta zuhaitzen hostoak? Zer **orlegi** argia!

Urdina : – Zertaz mintzo zara? Amaiak egin duen baratzeaz?

Berdea : – Bistan da! Ni gabe ez da baratzerik, ez kanporik!

Urdina : – Zer uste duzu? Eta ni gabe ez da zerurik, ez eta itsasorik.

Garrantzitsuenak dira horiek!



orlegi : berde.



- 25 **Horia** : – Ezetz! inportanteena argia da! Ni naiz argia! Ni naiz ilar-
gia, izarrak... Hondartzak ere horiak dira... eta hurren ileak!
- Marroia** : – Aski! Aski! Denak garrantzitsuak gara. Nik, zuhaitzen
enborrak egiten ditut, bai eta animalia anitz: hartzak, behiak,
zaldiak...
- 30 **Berdea** : – Eta zuk, Gorri? Isilik zaude. Zer egin duzu egun?
Gorria : – Nik? Gauza guti.
Urdina : – Zer egin duzu? Ez diguzu erran nahi?
Gorria : – Bai! bai! Tomate eta lore zenbait margotu ditut. A!
bai... gerezi batzuk ere...
- 35 **Marroia** : – Arras guti da hori! Eta zergatik gu baino ttipiago zara?
Gorria : – Barkatu... oilo **kukurusta** batzuk ere margotu ditut.
Horia : – Tururu!... Egia erran behar diguzu! Zergatik zara gu
baino ttipiago? Amaiak asko erabili zaitu? Zertan ote?
Gorria : – Ez dut erran nahi...
- 40 **Berdea** : – Ez zaitezela trista eta errazu zer gertatzen zaizun.
Gorria : – Goizean, eskolan, Amaiak lan bat bazuen egiteko...
Urdina : – Bai eta gero zer?
Gorria : – Amaiak bere buruan mila gauza zeuzkan: jostailuak,
lagunak eta beste...
- 45 **Urdina** : – Eta orduan lana gaizki egin du?
Horia : – Eta hutsak egin ditu... Anitz huts?
Gorria : – Bai... asko! Irakasleak huts guziak ongi zuzentzea
galdegin dio.
Marroia : – Orduan zuk, Gorri, huts guziak zuzendu dituzu?
50 **Gorria** : – Bai! Eta askotan xorroxtu nau eta orain zuek
baino ttipiago naiz.
Margo guziak : – Gaixo Gorri!
Berdea : – Ixo! Amaiak entzunen gaitu...

kukurusta : oiloek, oilarrek
edo xori batzuek buru
gainean duten hegia.
Gandorra.

Armand Colin argitaletxeko *Histoires et dialogues* liburuafik egokitua.

① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Arkatz margolariak erosi dizkio amak Amaiari. Zergatik ?
- Zenbat arkatx erosi dizkio ?
- Zertan erabiltzen da arkatx margolari urdina ? Eta horia ?
- Arkatz gorria beste arkatzak baino higatuago da. Zergatik ?
- Zergatik arkatx gorriak ez du mintzatu nahi ?

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

▶ Testuan aipu diren fruituen eta animalien izenak idatz.

▶ Erranaldi hauek ezezkoan idatz itzazu.

Amaia neska ona da.

ezezkoan :

Amaiak arkatx margolariak baditu.

ezezkoan :

Ni naiz Eguzkia.

ezezkoan :

③ JOKOA

- Kolorezko arkatzak mahai baten gainean ezar.
- Kolore bakoitzeko bi arkatx behar dira (bi gorri, bi beltz...).
- Ikasleak bi lerrotan eman (bietan kopuru bera).
- Jokoa bi lerroen arteko lehiaketa izanen da.
- Lerro bakoitzean, ikasle batek besteari mezu bat ahotik beharrira pasatuko dio. Mezua kolore baten izena da : gorria, berdea,...
- Horrela doa mezua lerro buru batetik bestera.
- Lerroko azken ikasleak manatua zaion koloreko arkatza ahal bezain laster hartu behar du mahai gainerik.

Telefonoa

④ BESTE LAN BATZUK

- Arkatz beltza mintzo da. Zer dio ?
- Eman dezagun kolore bat zarela ; zer margo zenezake ?